

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

BIODIBERTSITATEA

Afrika: deforestazioaren bideak

AZKEN HIRU HAMARKADATAN sateliteek hartutako irudiei esker, ikerlariek Afrika erdiko deforestazioaren progresioa neurtu dute.

Gero eta bide gehiago egiten ari dira Afrika erdiko baso hezeetan egurraren ustiapena dela eta, batez ere mahogany bezalako egur noblea lortzeko. Horregatik gero eta baso gutxiago geratzen da. Deforestazioaren aurrerakada neurtzeko 1973tik 2003ra bitarteko 300 irudi –denak sateliteetatik egindakoak– erabili dituzte ikerlari estatubatuarrek; guztira 4 milioi metro koadroko azalera aztertu dute.

Nadine Laporte eta bere lankideek baso ustiapenerako 51.916 kilometro katalogatu dituzte Kamerunen, Erdiafrikako Errepu-



Sateliteetik egindako argazkietan oihanean irekitako bideen handia nabarmen geratzen da.

blikan, Ekuatore Ginean, Gabonen, Kongoko Errepublikan eta Kongoko Errepublika Demokratikoan. Zientzialariek sailkatutako bideak Erdiafrikako bideen %38 dira.

Aldaketarik garrantzitsuenak Kongoko Errepublikan gertatu dira. 1976 eta 1990 bitartean urtero 156 km berri eraikitzen zituzten bertan; 1990 eta 2000 urteen artean

urteko 660 km berri eraiki zituzten. Kongoko Errepublika Demokratikoan dute baso eremu handiena, Erdi Afrikako guztiaren %63. Eta bertan 1986 eta 1990 artean urteko 336 km berri eraiki zituzten; 2000 urtetik gaurdaino urteko 456 km berri eraiki dira.

Gaur egun, aipatu basoen herena (600.000 km koadro) ustiatzen ari dira eta %12 baino ez dago babesturik. Gainera, ustiatzea errazteko zabaltzen diren

Osasuna

JABIER AGIRRE

Asma: arnasa hartzea bizitzea da

**ASMA DA ARNAS GAIXOTASUN OHIKOE-
NETARIK BAT.** Funtsean airebideeta-
ko buxadura eta inflamazio kroni-
koa da asma. Eta bronkioen
erreakzioak ondorengo sintomak
sortzen ditu: txistu-hotsak arnaste-
rakoan, disnea edo arnastetua,
nekea, bularreko zampaketa sen-
sazioa eta eztula, gaeuz edo goi-
zaldean batez ere. Asma-aldi
horiek aire fluxuaren buxaduraren
kin batera gertatzen dira, eta buxa-
dura hori atzera itzulgarria da, nor-
malean bere kasa edo bestela
tratamenduaren eraginez itzultzen
da arnasa bere onera.

Umeetan asma oso patologia
arrunta da, gaixotasun kroniko larrien artean ohikoena. Gaitz hau gero eta indartsuago eta iraunkorragoa da baldin-
tza genetiko eta klimatikoaren eraginez eta kanpoko alerge-
noak gero eta gehiago direlako. Badira arrisku faktore
batzuk asmak adolezentszian eta helduaroan ere jarrai
dezan eragiten dutenak. Adibidez familian asma-aurreka-
riak edukitzea, alergikoa izatea edo gaixotasuna bi urte

bete aurretik agertzea. Asma alergikoa, asma kasu guztien
%85 izatera irits daiteke, eta errinitis alergikoen ia erdia
asmarekin batera ager daitezke.

Alergia sintomak martxan jar ditzaketen faktoreak kan-
pokoak izan daitezke –hautsa, onddoak, animalien ileak edo
polenak, nagusienak aipatzearen–, izan daitezke narrita-
tzaileak –tabakoaren kea, bernizak, aerosolak, garbiketako
produktuak– edota beste hainbat –klima-aldaketa, ekaitzak
tximistekin batera agertzen direnean, emozioak, estresa–.

Krisiaren tratamendua kortikosteroideak inhalatzea iza-
ten da normalean, baina paziente asmatikoen erdiak ez du
betetzen agindutako tratamendurik. Eta gaizki kontrolatuta-
ko asma kasu horiek 180.000 heriotza ekartzen dituzte
urtero mundu osoan; tuberkulosia eta HIESak batera baino
kostu ekonomiko handiagoa eraginez. Dena den, tratamen-
duak baino garrantzia handiagoa du prebentzioak. Horrega-
tik, honatx arreta neurri batzuk:

- ✓ Ez utzi inoiz medikuak agindutako botikak hartzeari.
- ✓ Ez erre. Ez asmatikoak jakina, ez asmatikoaren ondo-
an ere.
- ✓ Kontuz ingurumenarekin –hautsa, polenak, onddoak,
animaliak–.
- ✓ Kontuz hotzeria eta bat-bateko hozbero aldaketekin.





bideak oso egokiak dira legez kanpoko ehiza egiten dutenentzat eta horrek ere ekarri du hainbat espezie desagertzeko zorian jartzea. ■

FISIKA

Haririk gabeko argia

MARIN SOLJACIC ETA ANDRÉ KURS fisikari estabatuak joan den urtean adierazi zuten haririk gabeko argia posible zela teorikoki. Aurten teoria praktikara eramanez inora konektatubako 60Wko bonbilla bat piztea lortu dute.

Erresonantzia magnetiko nuklearra eta ezaguna den teoria bat erabili dituzte horretarako. Hots: bi gailuk era berean bibratzen badute posible da beraien artean energia transmititzea.

Elektrizitateak ez bezala erresonantzia magnetiko nuklearrak oso eragin txikia du izakiengan, eta horretan datza aurkikuntzaren garrantzia.

Sistema horri ikusten zaizkion berehalako aplikazioak telefono eta ordenagailu eramangarrien kargatzean daude. Aparailu horiek inora konektatu gabe kargatzeko modua izan liteke etorkizunean. ■



Gero eta kable gutxiago beharko dugu ordenagailuekin.

Makina bat kontu

landareak

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Ametsetako arabarba

LURRETAKO LEZKA BIZANTZIARRA etxeratzean pago negartien adarren ferekapean urte gozo batzuk badaramatzen arabarbaren (*Rheum rhabarbarum*) aldamean jarri asmo dut. Izurri beltzak hustu omen zuten Arraztiatik Zirizarako gladiolo-lezka haren istorioa, honenarekin pareka daiteke. Irakurri, irakurri... XIX. mendeko azken hamarkadan izurri zuneta beltza arkakuso arruntek hedatzen zutela jakin eta bere aurkako borroka benetan eraginkorra antolatzen zen arte makina bat lotsagabe mutur-luze aberastu zen maki sasi belar-erremedio salduaz. Arabarbarrena tartean. Londresen XVI. mendearan amaian berebiziko izurriari aurre egiteko *fashion* gorena arabarba hautsa hartzea zen. Hau Txina eta Mongoliatik ekartzen omen zuten veneziarrek eraiki zuten jauregi latzik *bisnis* honen bizkar.

Arabarba frantsesen *rhubarbetik*, zein latinaren *rheum barbarum*, zein *rhubarb* grekotik, zein Ukrainako Rha ibaiaren izenetik, hau da, batelari ederrik baduen Volga ibaiaren izena denetik dator. Bere erribera zabaletan du nonbait jatorria prezioa igotzeko asmo soilez Asian arrunt haruntzagotik zekartela zioten belar honek. Erdi Aroan beltz erabili aurretik Mediterraneoko inperioen garaitan afrodisiako gisa gozo jo zioten landare honi.

Lurpean erreserba zorten ederra du eta neguoro desagertzen bada ere urtetik urtera kementsuago berritzen da. Hosto gero eta handiagoak, metro bete artekoak izan daitezke, eusten dituzten txortan gorri antzak dira jaki: mermelada, dultze, konpota... Barrabas-edo Txomin-belarraren senide haren tankeran azido oxaliko franko du eta honek hortzetako esmaltea gogor erasotzen du. Udaberrian zenbat eta lehenago jan azidotan eskasagoa denez, badakizu... Esaerak dio behin ekainean sartuz gero haren garratasunaren xarma ahazteko. Ametsetan arabarba tartean baduzu jakizu: lantzen ari bazara gustuko gauzak izango dituzu inguruan, sukaldean ari bazara berarekin lagun bat galtzerainoko liskarretan arituko zara eta amets horietan arabarba jaten ari bazara duzun lanarekin gustura ez zauden seinale.



Arabarba landarea eta landareaz egindako opila.



erdiko kaiera

2007ko ekainaren 24a

ARGIA

47

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
 Industrialdea 1, 20186 Lesarte-Oria
 Tel. 941.37.16.48
 e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA